

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoa 2015eko uztailaren 3an aurkeztuko du

## Jean-Michel Basquiat: Bada garaia

Babeslea



Iberdrolan, itzela da guretzat Guggenheim Bilbao Museoarekin *Jean-Michel Basquiat: Bada garaia* erakusketan lankidetzan aritzea, estatubatuar artistari buruzko garrantzitsuenetako bat baita, eta Basquiaten artelanen gaiei erreparatzen dien lehenengoa.

Basquiaten lana joan den mendeko nabarmenetako bat da, 1980ko hamarkadan egindakoa den arren, eta, egun, interes handikoa zalantzarik gabe, bai artelanen taxutzeagatik, bai artelanen edukiengatik. Basquiaten estilo paregabeak (aldi berean, hieroglifiko eta komikiaren, kultura jaso eta herrikoien artean) irudiak eta testuak bateratzen ditu eta, hartara, aurkeztu egiten digu munduaren ikuspegi argigarri bat, oinazez orbandua, baina.

Basquiaten sorkuntzak adierazpenak dira, berdintasunik ezaren eta arrazakeriaren kontra, aurreiritzien eta diskriminazioaren kontra; aldarrikapenak ere badira, askatasun, duintasun eta begirunearen alde. Bere arteari musika eta poesia darizkio, eta askotarikoak elkartzen ditu: egunerokotasuneko elementuak zein arte, literatura eta musikako artelan klasikoak, baita anatomia-irudikapenak, kirolaren mundua, historia (batez ere afrikar-amerikarrena), bizia eta heriotza...

Bere ibilbide labur eta goiztiarrean, Basquiatek ez zion inoiz sortzeari utzi. Egun batean, bere lan-ekoizpen itzelari buruz galdetuta, artistak zer adierazi zuen eta bere buruarekin bestela zer egin ez zekiela; alegia, premiaz egindako artea zela.

Espero dugu erakusketa hau, Basquiaten abiadura biziko ibilbide distiratsuaren omenez antolatutakoa, Guggenheim Bilbao Museora bertaratutako gure bisitarien atseginekoa izatea. Nire zorion beroenak Museoari eta erakusketa hau Ontariotik (Kanadatik) gure hirira heltzeko modua jarri duten pertsona guztiei, aukera eman baitigute artista honen aparteko lanaz disfrutatzeke eta bere mezu sozialean sakontzeko.

**Ignacio S. Galan**  
**Iberdrolako presidentea**

### *Jean-Michel Basquiat: Bada garaia*

- Komisarioak: Dieter Buchhart eta Álvaro Rodríguez Fominaya (Bilbao)
  - Noiz: 2015eko uztailaren 3a-azaroaren 1a
  - Babesle: Iberdrola
- 
- Erakusketa honetan, ehun bat artelan inguru aurkezten dira. Bertan, badira Basquiaten ibilbide kartsua inspiratu zuten gaiak, 27 urte bakarrik zituela hil baino lehenagokoak.
  - Artistak berak deskribatu zuenez, “gizabanakoaren egia sakonenetarako abiapuntua” dira bere artelanak, ahaltuak eta hunkigarritasunez beteak, eta arraza-identitatea edo historia, besteak beste, lantzen dituzte.
  - Basquiatek arte-galerietako erakusketetan aritzeko luze gabe utzi zuen grafiti kontzeptualeko bere jatorria, baina bere margolanek kaleko lengoia eta sinboloak biltzen dituzte, eta gizon beltza omentzen, errege eta santu gisa irudikatuz.
  - Artista moduan, arte jasoan eta grafitian murgildu zen, baita jazzean eta rapean ere, punkean eta herri-kulturan, anatomia-eskuliburuetan eta komikietan, eta geruzaz hornitutako artelanetara eraman zuen konplexutasun hori guztia, egungo interneten kultura iragarritz.

Guggenheim Bilbao Museoak *Jean-Michel Basquiat: Bada garaia* aurkeztu nahi du. European aitzindaria den erakusketa honetan, ehunka lan biltzen dira AEBetako eta Europako askotariko museo eta bilduma pribatuetatik ekarritako formatu handiko pinturak eta marrazkiak. Art Gallery of Ontariok antolatu eta Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan egindako erakusketa hau Basquiaten ekoizpenaren lehen gaikako azterketa da, eta Iberdrolaren babes oparoa jaso du.

Jean-Michel Basquiat (1960–1988) 20 urte zituela ospetsu bihurtu zen bere marrazki eta pintura urratzaile bihurriak zirela eta; New Yorkeko artearen mundua irauli zuen 1980ko hamarkadaren hasieran. Nazioarteko ospea hartu zuen hainbat gai (arrazakeria, politika edo gizarte-hipokresia) lantzen dituzten artelan indartsu eta adierazkorrei esker. 27 urte bakarrik zituela hil eta bere ibilbidea eten egin zen arren, bere lanak izugarriko eragina izaten jarraitzen du.

Artistak berak deskribatu zuenez, “gizabanakoaren egia sakonenetarako abiapuntua” dira bere artelanak, bizigarriak eta hunkigarritasunez beteak. Kaleko artea zuten erreferentziatzat, grafiti kontzeptuala hartzen baitzuten oinarri, eta material birziklatuak erabiltzen zituen euskarri-lanak egiteko, adibidez, zaborretako atekak edo bilgarriak.

## Kaletik ospea izatera

1976an, Basquiat eta bere adiskide Al Diaz Behe Manhattango hormak SAMO© ezizenaz margotzen hasi ziren, zeri eta “SAME Old shit” esaerari erreferentzia eginez (“betiko kaka”). Artelan horietan asmamenez baliatzen zituzten hitzak, horiek ikusten zituztenak zirikatzeke. Basquiaten ospea areagotzen joan zen laster. Rock-talde bat eratu zuen, eta Edo Bertoglioren *indie* film batean agertu zen, *Downtown 81*; gainera, Andy Warholen adiskide egin zen. Bere bakarkako lehenengo erakusketa, 1982an 21 urte baino ez zituela, osorik saldu zen.

Bat-batean horren ezagun bihurtuta, ospetsuekin harremanetan eta haiekin ideiak partekatzen hasi zen, adibidez, David Bowierekin edo Madonnarekin —azken hau neska-lagun izan zuen denbora labur batez—. Musika-bideo batzuetan ere agertu zen, eta *New York Timesen* aldizkariaren portadan protagonista izan zen. Hil eta 27 urtera, bere eraginak indarrean dirau.

Basquiaten ikuspegi artistiko berritzaile eta zirikatzaileak ikusizko lengoaia erradikal bat ekarri zion 1980ko hamarkadako New Yorkeko eszenari, zenbait gairi helduz, adibidez, arrazakeria, klase-borroka, gizarte-hipokresia eta beltzen historia. Inspirazio-iturri hartu zituen arte jaso, adibidez, Espresionismo Abstraktua eta Arte Kontzeptuala, baina baita hip hopa, jazz, kirola, komikiak eta grafitia, eta ikur errepikakor batzuk erabili zituen bere artearen eta bizitzaren oinarritzko gaiak esploratzeko.

## Ibilaldi bat erakusketan barrena

### **Lehenengo gaiak: “Kalea da estudioa” eta “Heroiak eta santuak”**

Erakusketak Museoaren hirugarren solairuan kokatutako zortzi atal dauzka, eta 305. aretoan hasten da. Hain zuzen, hor aurkezten dira bere artelan goiztiarrenak, bi gairen inguruan harilkatuz: “Kalea da estudioa” eta “Heroiak eta santuak”. Pieza horien gaiek, ikuspegiak eta materialek hiriko paisaiak dituzte inspirazio-iturri. Brooklynen jaio zen; aita Haitikoa zuen eta ama estatubatuarra, jatorriz Puerto Ricokoa. 17 urte baino ez zituela, New Yorkeko arte-giroan sartu zen bete-betean grafiti kontzeptualaren bidez. Artelan horiek mezu politikoak, poetikoak eta dibertigarriak dira, zirikatzaileak, bere adiskide Al Diazekin batera sortutakoak, biak ere SAMO© izenpean aritzen zirela.

Basquiatek ez zuen bere burua grafiti-artistatzat jotzen, baina grafitia erabili zuen artearen munduko ateak zabaltzeko giltzarri. Ondoren, kalean aurkitzen zituen materialak erabiltzen hasi zen lanerako: baztertutako apar-goma zatiak, leihoak eta ateak. Basquiatek bere estilo bereizgarria baliatu zuen lehen artelan berritzaile hauetan hiria irudikatzeke —autoak, hegazkinak, trenak eta kaleko jolasak— eta, hartara, kaleko poesia erakusketa-aretoetan sartu zuen. Atal honetan, nabarmentzekoak dira *Izenburu gabe/Auto istripua* (*Untitled/Car Crash*, 1981) eta *4. zenbakia* (*Number 4*, 1981).

Francesco Clemente artistak (Basquiaten lankide aritutakoa) ondorengo esan zuen irudi ironiko horiei buruz: “Jean-Michelen koroak hiru punta dauzka, bere hiru errege-leinuei dagozkienak:

poetarena, musikariarena eta boxeo-txapeldunarena. Jeanek indartsutat hartzen zituenekin neurtzen zuen bere trebetasuna, zaletasun eta adin kontuei begiratu gabe”.

Basquiatek zalantzan jarri zuen Mendebaldeko historia gizon beltzak errege edo santu gisa irudikatzerakoan. Koroa ikurtzat erabili zuen, behin eta berriro, bere heroien handitasuna aldarrikatzeko: kirolariak, musikariak eta idazleak. Leinu horien lorpenak inspirazio-iturri hartuz, Basquiatek uste zuen leinu noble horien lana jarraitzen zuela eta, sarritan, koroa horrekin irudikatzen du bere burua autorretratuetan. Koroa ikur aldakorra da: batzuetan argi-koroa da eta, bestetan, arantza-koroa da; santutasunarekin martirioa etorri ohi dela azpimarratzeko. Are, Basquiatentzat heroi eta santu horiek gudariak dira eta, ondorioz, garaile irudikatzen ditu inoiz baino sarriago, besoak gora, garaipenaren seinale. Horren eredu ditugu *Busted Atlas 2* (1982), *Titulurik gabea* (1982) eta *Lasterketako zaldi iluna—Jesse Owens* (*Dark Race Horse—Jesse Owens*, 1983).

### “Historiak aldarrikatzen” eta “Islak”

Erakusketa 306. aretoan jarraitzen du, beste bi gai hartuta: “Historiak aldarrikatzen” eta “Islak”. Lehenengoaren inguruko artelanek Estatu Batuetan gertatzen ari diren gertakari batzuk azaltzen dituzte. Fergusonen (Missouri) eta Ipar Amerika osoan gertatu diren protestek bezala, Basquiaten artelanek nabarmentzen dute pertsona beltzen bizitzek axola dutela. Artistak egunero egin behar zion aurre gizarte-arrazismoari eta hipokresiari: arte giroan txalotutako artista zen, baina ezin zuen taxirik hartu New Yorken. Bizipen horiek beltzen historiak eta afrikar diaspora iturri dituzten margolan kartsuetara eraman zituen.

Basquiaten pintura horiek esklabutza eta kolonialismoa ikertzen dituzte, eta jazarpen historiko horiek egungo ekintza arrazistekin lotzen ditu, esaterako, poliziaren bortizkeriarekin. “Ni izan nintekeen, ni izan nintekeen”, horiek izan ziren bere adiskide eta grafitilari Michael Stewart hiltzean Jean-Michel Basquiatek adierazitako hitzak. Istorio horiei helduz, Basquiat aldaketaren akuilu bihurtzen da ondorengo artelanen bidez: *Uraren adoratzailea* (*Water-Worshipper*, 1984) eta *Moises eta egiptoarrak* (*Moses and the Egyptians*, 1982), azken hau Guggenheim Bilbao Museoaren bildumakoa.

Bestalde, “Islak” atalean ohartuko gara Basquiatek bere burua ikusten zuela margotzen zituen pertsonengan. Bere erretratuak identitatearen inguruko hausnarketa dira —zehazki, gizon beltzen identitatea— baina, era berean, artista beraren islatzat ere jo daitezke. Basquiatek begirunea zien pertsonak eta hurbilekoak erretratatzeko zituen, bere heroiak edo lagunak izan, eta haiekin partekatutako esperientziak adierazten dituzte bere artelanek.

### “Dualtasunak eta identitate bikoitzak” eta “Marrokerietan: marrazkiak eta zirikatzeak”

307. aretoan, “Dualtasunak eta identitate bikoitzak” izenburupean, Basquiatek elkarren ondoz ondo jartzen ditu gizabanakoak eta objektuak, tentsioa dakarten eta zentzumenak asaldatzen dituzten harreman anbiguoak eratuz. Sarritan esan ohi da Basquiat bi mundutan bizi zela: alde

batetik, mundu baten barruan zegoen (*insider* bat zen) eta, bestetik, kanpoan (*outsider* bat zen). Artistarentzat, baina, dualtasunaren kontzeptua konplexua zen: identitatearekin zerikusia zuen, baina baita diruarekin eta klaseko gizarte-sistemekin ere. Lan hauetan, zuriaren eta beltzaren, ilunaren eta argiaren arteko ideiak berreskuratu zituen Basquiatek, ongiaren eta gaizkiaren arau eta ideia jakin batzuk zalantzan jartzeko. Margolanetako batzuetan, sakon errotutako gatazkak agertzen dira; beste batzuetan, aldiz, laguntasunaren inguruko irudiak.

Osagai oso ezberdinak uztartzean, Basquiatek aditzera eman zuen aurkako indarrak batu daitezkeela osotasun bat eratzeko. Atal honetan, *Six Crimee*, 1982, eta *Esne beltza* (*Dark Milk*, 1986) nabarmentzen dira eta, horiei buruz, Rene Ricard poetak esan zuenez: “Justaposizio hauen asmamen harrigarriak inguruko gertakizunetan argi-izpi bat igor dezake”.

Areto honetan aipatzen den beste gai bat artistaren ibilbide osoan agertzen da: “Marrokerietan: marrazkiak eta zirikatzeak”. Horri buruz, artearen komisario eta historialari Richard D. Marshallek adierazten duenez, marrazki eta salgai ezagun hauetan, Basquiatek arrazakeriaren instituzionalizazioaren isla sakona ikusten du. Hazi ahala, Basquiat artean trebatu zen, eta komiki-marrazkilaria izan nahi zuen. Lan hauetan, komikietako irudiak hartu eta bestela erabiltzen ditu, narrazio iraultzaileak sortzeko.

Margolan hauek murriztuak eta ezagunak dira eta, beraz, ulerterrazak ikuslearentzat; Basquiatek askotariko heldulekuak eskaintzen dizkio. Ironiaz beteta daude Basquiaten komikietako moduko marrazki hauek: ikur ezagunak gizarte-arazo garrantzitsuen ondoan daude. Pertsonaiak, hasiera batean, komikoak badirudite ere, haien ezaugarri sadikoak azpimarratu zituen Basquiatek. Pertsonaiok marrokerietan dabilta: ezagutza sekretuak dituzten jainko-jainkosak dira, araei muzin egiten diete eta ezohiko jokabideak dituzte. Artistak berak egin zuen moduan, artelan hauek forma ugari hartzen dituzte eta ez dute eginkizun bakar bat jokatzen. Horren adibide ditugu *Exu* (1988) eta *Napoliko gizona* (*Man from Naples*, 1982), azken hau Guggenheim Bilbao Museoaren bildumakoa.

### **Basquiat eta Warhol: artearen munduko bikote bitxia**

Erakusketak 303. aretoan jarraitzen du. Bertan, Basquiatek Andy Warhol, Francesco Clemente, Keith Haring eta Kenny Scharfekin lankidetzan egindako artelanen aukeraketa bat ikus dezakegu. Basquiat guztiz murgilduta zegoen New Yorkeko 1980ko hamarkadako kultur giroan, eta hainbat lankidetzan egin zituen musikariek, zinemagileekin eta artistekin.

Ospeak eta dirutzak bere harremanak zaildu zituenean eta bere burua bakartuta ikusi zuenean, Basquiatek Andy Warhol artista beterranoa aurkitu zuen, baita buruz buru elkarrentzako harreman onuragarri bat hasi ere. Basquiatek miretsi egiten zuen Warhol, eta konfiantzazko eta hurbileko aholkulari bat aurkitu zuen haren baitan. Warholek, berriz, inspirazio-iturri hartu zituen Basquiaten energia handia eta sormen emankorra. Biek lankidetzan sortu zituzten hainbat artelan 1984 eta 1985 artean, baita horietan beren serigrafia eta pintura estilo bereizgarriak konbinatu ere. Elkarlan hori, berritzaile bezain emankorra, Basquiaten ekoizpen artistikoaren hamarren bat

da. Lankidetzeta horri buruz, ondorengoa adierazi zuen Ronnie Cutronek, Warholen adiskide eta laguntzaileak: “Arte giroko bikote zoro bat-edo ziren; bikote bitxia. Harreman sinbiotikoa zen. Jean-Michelek uste zuen Andyren ospea behar zuela, eta Andyk pentsatzen zuen Jean-Michelen ideia freskoak behar zituela. Jean-Micheli esker, Warholek irudi iraultzailea berreskuratu zuen”. Areto honetako formatu handiko artelanetan kokatzen dira *Irabazi milioi bat dolar* (*Win \$ 1'000'000*, 1984) eta *Egizu bekatu gehiago!* (*Sin More!*, 1985).

### “Sampling eta scratching. Musika, hitzak eta collagea”.

Erakusketa 302. aretoan amaitzen da, Basquiaten beste gai handietako batekin: “*Sampling* eta *scratching*. Musika, hitzak eta collagea”. Izenburuak berak ingelesez (*Now's the Time*) Charlie Parker-i, haren abesti bat, eta Martin Luther King-i, haren hitzaldi bati, egiten die erreferentzia. Basquiatek inguratzen zuen guztian aurkitu zuen inspirazioa, irakurle amorratua zen, eta sarritan entzuten zuen musika, edo telebista ikusten, pintatzen zuen bitartean.

Artista moduan, arte jasoan eta grafitian murgildu zen, baita jazzean eta rapean ere, punkean eta herri-kulturari, medikuntza-eskuliburuetan eta komikietan, eta geruzaz hornitutako artelanetara eramanean zuen konplexutasun hori guztia, egungo interneten kultura iragarritz. Musika izugarri eragin zion eta, iturri-multzo itzel baten erreferentziak hartuz, Basquiatek hip hop espiritua hezuramaitzen zuen ikuspegi poetiko libre bat hartu zuen, hip hoparen goraldia berarenarekin paralelo baitzihoan. Artelan guztietan —irudi asko gainjarri zituen horietan nahiz esaldi kitzikatzaile soilak zituztenetan— Basquiatek ikurrak eta testuak uztartu zituen, bere iturriak bezain anitza den arte-ikuspuntua gauzatzeko. Franklin Sirmans arte kritikariaren hitzetan, “Lanetan performancea, musika eta artea bat egiteko Basquiaten moduak ez zuen aurrekaririk bere garaian eta oraindik ere ez du”. Atal honetako adibide ditugu *Heroikoa* (*Eroica*, 1987) eta *Oreo* (1988).

### Didaktika guneak: Jean-Michel Basquiat. Grafititik haratago

Basquiat jantzia zen eta haren artegintza grafititik haratago doa. Artistaren sortze-prozesuan sakontzeko Didaktika proiektu handi bat garatu da. Atal hori ikusteaz gain, Basquiaten lanekin lotura duten hainbat jardueretan parte hartzeko aukera egongo da.

Didaktika gune hauetan dago: 208 aretora ematen duen balkoian, ondoko korridorean eta 301. eta 304. aretoetan.

Gune horietako azalpenen bidez Jean-Michel Basquiaten lana bere burua gogobetetzeko bitartekoa izan zela agerian jarri nahi da, baina, halaber, artistak afrikar-amerikar historiaren memoria-lana egin zuela eta Ameriketako Estatu Batuetako egoera politiko eta soziala salatu zuela aditzera eman. Ideia horietan sakontzeko korridorean hainbat testu daude, gai horiez gain grafitiaren historia jorratzen dutenak, eta horien alboan buru mapa bat, zeinetan Basquiaten harreman pertsonal zein profesionalak adierazten diren (tartean, artista Andy Warholekin eta Keith Haringekin); harreman horiek lankidetzeta oparoak ekarri zituzten.

Artistaren interesak —historia, politika, musika zein literatura— azaltzen dituzten testu horiek laguntzeko, gainera, irudiak eta ikus-entzunezkoak baliatu dira. 304. aretoan artista protagonista zituen bi film zati daude: *Downtown 81* (Maripolek ekoitzia) eta *An interview with Basquiat* (Tamra Davisek ekoitzia).

Areto horretan, era berean, artistarekin zerikusia zuen musika-aukeraketa bat dago entzungai. Abestien artean daude Miles Davis-en eta Charlie Parker-en jazz doinuak, Rammellzee-ren eta K-Rob-en rapa, 1980ko hamarkadako arrakastak (Blondie, David Bowie, Talking Heads eta Grace Jones, besteak beste) eta Basquiaten musika-taldearen, Gray-ren, konposaketak. Horrez gain, irakurketa-gune bat dago, artistak eredutzat zituen egileengan sakontzeko. Bertan kontsultarako daude askotariko liburuak: abentura (Mark Twain), anatomia (Henry Gray) eta William Butler Yeats-en eta William Burroughs-en poesia.

Azkenik bisitariak bi jardueretan parte hartzeko aukera izango dute: lehenengoak idazmena eta argazkigintza ditu gai (301. aretoan) eta bigarrenak grafitiak (304. aretoan). Bi jarduerak aretoetako orientatzaileek zuzenduko dituzte.

#### Azaleko irudia:

Jean Michel Basquiat

*Autorretratua (Self-Portrait)*, 1984

Akrilikoa eta olio-barra paper gainean, mihise gainean muntatua

100 x 70 cm

Yoav Harlap Collection

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York

#### Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketing Arloa

Tel: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) (prentsa-eremua).



Prentsa irudiak:  
**Jean-Michel Basquiat: Bada garaia**  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

Jean-Michel Basquiat

*4. zenbakia (Number 4)*, 1981

Akrilikoa, olio-barra eta paperen collagea mihise gainean

167 x 137 cm

Honen bilduma: Andre Sakhai, honen eskaintza: Marianne Boesky Gallery, New York

Argazkia: Jason Wyche

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artestar, New York



Jean Michel Basquiat

*Ringa (The Ring)*, 1981

Akrilikoa eta olio-barra mihise gainean

152,4 x 121,9 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Acquavella Galleries

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artestar, New York



Jean Michel Basquiat

*Polizia beltz baten ironia (Irony of a Negro Policeman)*, 1981

Akrilikoa eta margoa mihise gainean

183 x 122 cm

Bilduma pribatua

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artestar, New York



Jean-Michel Basquiat

*Titulurik gabea*, 1982

Akrilikoa eta olio-pintura liho gainean

193 x 239 cm

Museum Boijmans Van Beuningen, Rotterdam

Argazkia: Studio Tromp, Rotterdam

© The Estate of Jean-Michel Basquiat

Licensed by Artestar, New York





Jean-Michel Basquiat

*Lasterketako zaldi iluna—Jesse Owens (Dark Race Horse—Jesse Owens)*, 1983

Akrilikoa eta olio-barra mihise gainean

213,5 x 91,5 cm

Collection of the Jean-Michel Basquiat Estate

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York



Jean Michel Basquiat

*Autorretratu (Self-Portrait)*, 1984

Akrilikoa eta olio-barra paper gainean, mihise gainean muntatua

100 x 70 cm

Yoav Harlap Collection

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York



Jean-Michel Basquiat eta Andy Warhol

*Irabazi milioi bat dolar (Win \$ 1'000'000)*, 1984

Akrilikoa mihise gainean

170 x 288,5 cm

Bischofberger Bilduma, Suitza

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York



Jean-Michel Basquiat eta Andy Warhol

*Ali gaixorik, bizitza borrokatzen (Ailing Ali in Fight of Life)*, 1984

Akrilikoa mihise gainean

193 x 267 cm

Bischofberger Bilduma, Suitza

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York



Jean Michel Basquiat

*Esne beltza (Dark Milk)*, 1986

Akrilikoa, fotokopien collagea eta paperen collagea mihise gainean

172,5 x 219,5 cm

Bilduma pribatua

Argazkia, honen eskaintza: Gagolian Gallery

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York



Jean-Michel Basquiat

*Heroikoa (Eroica)*, 1987

Akrilikoa, olio-barra eta fotokopien collagea paper gainean, mihise gainean

muntatua

228,5 x 271,5 cm

Bilduma pribatua

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York



Jean Michel Basquiat

*Exu*, 1988

Akrilikoa eta olio-barra mihise gainean

199,3 x 254 cm

Bilduma pribatua

© Estate of Jean-Michel Basquiat. Licensed by Artstar, New York



Jean-Michel Basquiat, 1984

Argazkia: Lee Jaffe, Copyright, Eskubide guztiak jabedunak dira  
Honen eskaintza: LW Archives



Jean-Michel Basquiat, 1984

Argazkia: Lee Jaffe, Copyright, Eskubide guztiak jabedunak dira  
Honen eskaintza: LW Archives



Jean-Michel Basquiat, 1984

Argazkia: Lee Jaffe, Copyright, Eskubide guztiak jabedunak dira  
Honen eskaintza: LW Archives

